

PRESTAKUNTZA-MODULUAREN IDENTIFIKAZIO-DATUAK

PRESTAKUNTZA-MODULUA	ESKU ETA OINETAKO TRATAMENDU ESTETIKOAK	Iraupena	60
		Espezifikoa	
Kodea	MF0359_2		
Lanbide-arloa	IRUDI PERTSONALA		
Lanbide-eremua	Estetika		
Profesionaltasun-ziurtagiria	Esku eta oinetako zainketa estetikoak	Maila	2
Profesionaltasun-ziurtagiria osatzeko behar den gainerako prestakuntza	Segurtasuna eta osasuna esku eta oinetako zainketa estetikoetan.	Iraupena	70
	Azazkalak zaintzeko eta edertzeko teknika estetikoak		70
	Azazkal artifizialak		80
	Esku eta oinetako zainketa estetikoetako lanekoak ez diren lanbide-jardunbideak		80

A atala: **GAITASUN-ERREFERENTEA**

Prestakuntza-modulu hau bat dator gaitasun-atal honekin: UC0359_2 ESKU ETA OINETAKO TRATAMENDU ESTETIKOAK EGITEA

B atala: **AHALMENEN ETA EDUKIEN ZEHAZTAPENA**

Ahalmenak eta ebaluazio-irizpideak

- A1: Esku eta oinen ezaugarriak behatzea, bezeroaren behar eta egoerarako tratamendu estetiko egokiena diseinatzeko.
- EI1.1 Esku eta oinetako larruazalaren alterazio estetikoak eta aplikatu beharreko tratamendu estetiko espezifikoak erlazionatzea.
- EI1.2 Esku eta oinetako larruazalaren eta azazkalen alterazio morfologiko eta patologiko ohikoenak deskribatzea, eta haiek eragin ditzaketen seinale eta sintomak adieraztea.
- EI1.3 Esku eta oinetako larruazaleko, azazkaletako eta azazkalen inguruko alterazio patologikoak eta ez-patologikoak detektatzeko kasu praktiko batean:
- Esku eta oinetako larruazal, azazkal eta azazkalaren inguruko patologia-seinaleak identifikatzea irudietan.
 - Bezeroari emango zaion aholku profesionala arrazoituz proposatzea.
 - Irudietan ikusitako alterazioak identifikatzea.
- EI1.4 Bezeroaren eskaerak detektatzeko balio duten galdera tipoak egitea.
- EI1.5 Esku eta oinetako alterazioetarako tratamendu estetikoak egiteko protokoloak diseinatzeko.
- A2: Esku eta oinetako tratamendu estetiko espezifikoaren prozesuak aztertzea eta larruazal-mota batean eta bestean eragiten dituzten efektuekin erlazionatzea, produktu, tresna eta aparatuen eskakizun teknikoak zehazteko.
- EI2.1 Esku eta oinetako tratamendu estetikoaren faseak azaltzea eta fase horietako bakoitzean egin behar diren eragiketa teknikoak adieraztea.
- EI2.2 Esku eta oinetako tratamendu estetiko espezifiko motak azaltzea eta larruazalean eragiten dituzten efektuekin erlazionatzea.
- EI2.3 Esku eta oinetako tratamendu estetikoetarako produktu kosmetiko espezifikoak hautatzeko erabiltzen diren irizpideak azaltzea, eta haiek erabiltzeko jarraibideak adieraztea.
- A3: Esku eta oinetako masaje estetikoaren teknikak trebeziaz aplikatzea.
- EI3.1 Bezeroak kokatzeko irizpideak azaltzea, masaje-teknikak egiteko beharren arabera.
- EI3.2 Lortu nahi diren efektuetarako —produktua larruazalean sartzea, erlaxatzea, likidoak mugitzea, zirkulazioa aktibatzea— mugimendu eta teknika espezifikoak aipatzea.
- EI3.3 Modelo baten esku eta oinetan masajea egiteko kasu praktikoetan:
- Gunearen beharren eta teknikaren arabera prestatzea bezeroa.
 - Masaje-teknikak aplikatzea, ezarritako ordena, presioa, erritmoa eta denbora errespetatuz.
 - Eskuzko teknikak aplikatzeko kontraindikazio erlatibo edo absolutu izan litezkeen patologia-seinaleak detektatzea.
- EI3.4 Esku eta oinetako mobilizazio- eta luzatze-teknikak aplikatzea, ezaugarri anatomofisiologikoak errespetatuz.
- EI3.5 Presio bidezko masajea eta hari lotutakoak egiteko teknikak aplikatzea, ordena, intentsitate eta erritmo egokiak errespetatuz.
- A4: Esku eta oinetako tratamendu estetikoak trebeziaz egitea, horretarako beharrezko tresna, aparatu eta kosmetikoak hautatuz eta prozesuaren eskakizunen arabera baliabide teknikoak erabiliz.
- EI4.1 Esku eta oinetako tratamendu estetiko espezifikoetarako produktu kosmetiko, tresna eta aparatuen hautatzeko erabiltzen diren irizpideak azaltzea, eta haiek erabiltzeko jarraibideak adieraztea.

EI4.2 Bezeroa eskaini beharreko zerbitzuaren arabera nola prestatu eta babestu behar den azaltzea.

EI4.3 Esku eta oinetako tratamendu estetiko espezifikoak egiteko kasu praktikoetan, ezaugarriak behar bezala zehaztuta daudela:

- Teknika gauzatzeko prestatzea eta babestea erabiltzailea.
- Esku eta oinetako tratamenduak egiteko beharrezko tresna, aparatu, osagarri eta produktuak hautatzea eta prestatzea.
- Erabiltzailea medikuaren kontsultara bidaltzea gomendagarri egiten duten patologia-seinaleak detektatzea.

EI4.4 Tratamendurako produktu kosmetiko espezifikoak aplikatzea, arazo estetikoaren, hautatutako tratamendu-teknikaren eta laborategi fabrikatzailearen jarraibideen arabera.

EI4.5 Aparatuak programatzea eta aplikatzea, teknikaren, bezeroaren sentikortasunaren eta lortu nahi diren efektuen arabera.

EI4.6 Modelo bati hidratazio-tratamendua eta eskuetako larruazalaren zahartzea prebenitzeko tratamendua egiteko kasu praktikoetan, hauek aplikatzea:

- Gunea garbitzeko eta prestatzeko teknikak.
- Teknika elektroestetikoak.
- Larruazalaren hidratazio, nutrizio eta prebentziorako eta larruazalaren zahartzea tratatzeko kosmetiko espezifikoak.
- Teknika oklusiboa.
- Masaje-teknika espezifikoak.
- Tratamenduak bukatzeko teknikak.

EI4.7 Modelo bati hidratazio-tratamendua, zirkulazioa hobetzeko eta oinetako likido-errententzioko tratamendua egiteko kasu praktikoetan, hauek aplikatzea:

- Gunea garbitzeko eta prestatzeko teknikak.
- Bibrazio-teknikak eta abar.
- Larruazalaren hidratazio, nutrizio eta prebentziorako eta larruazala zahartzearen kontra tratatzeko kosmetiko espezifikoak.
- Masaje-teknika espezifikoak: tradizionala, presio edo mobilizazio bidezkoa, luzatze-eraketak.
- Tratamenduak bukatzeko teknikak.

A5: Esku eta oinetako tratamendu estetiko espezifikoaren prozesuak eta haietan lortutako emaitzak ebaluatzea, beharrezkoa balitz emaitzak aurreikusitakoak ez direnean optimizatzea neurriak proposatzeko.

EI5.1 Emandako zerbitzuaren kalitaterako erabakigarriak diren alderdiak identifikatzea, esku eta oinetako tratamendu estetiko espezifikoetako prozesuak aztertuz.

EI5.2 Erabiltzailearen gogobetetze-maila —lortutako azken emaitzari buruzkoa zein jasotako arreta pertsonalari buruzkoa— zein den jakiteko aukera emango duten galdera tipoak egitea.

EI5.3 Tratamendu estetiko espezifikoak egiteko teknikaren aplikazio-prozesuaren eta emaitzen ebaluazio-irizpideak definitzea.

EI5.4 Ematen den zerbitzuan hutsuneak eragin ditzaketen kausa teknikoak eta bezeroarentzako arretakoak zerrendatzea.

BI5.5 Azazkal artifizialen aplikazioan gertatutako desbideratzeak zuzentzeko neurriak hartzea.

EI5.6 Esku eta oinak edertzeko prozesuetan arriskuak prebenitzeko eta ingurumena babesteko zer arau aplikatu behar diren deskribatzea.

Edukiak

1. Esku eta oinetako larruazala.

- Esku eta oinetako ezaugarri espezifikoak, tratamendu estetikoekin erlazionatuta.
- Egitura. Lodiera, gogortasuna eta malgutasuna.
- Zainketa estetikoaren bidez trata daitezkeen alterazio estetikoak:
 - Deshidratazioa.
 - Hipertrikosisa.
 - Larruazala zahartzea.
 - Pigmentu-orbanak.
 - Queratosis.

2. Esku eta oinetako zainketa estetikoetan zerbitzuaren antolamendua:

- Lan-eremua prestatzea.
- Jantzera eta profesionalak babesteko neurriak.
- Bezeroa babesteko neurriak.
- Altzari ergonomikoak.
- Bezeroa kokatzea.
- Jarrera-higienea.

3. Esku eta oinetako zainketa estetikoetako eskuzko teknika espezifikoak

- Masaje estetikoko mugimenduak.
- Presio bidezko masajeko mugimenduak.
- Mobilizazioak eta luzatze-eraketak.

- Parametroak eta aplikatzeko teknikak.
- Efektuak, sekuentziazioa, jarraibideak, kontuan hartu beharrekoak eta kontraindikazioak.

4 Esku eta oinetako tratamendu estetikoak

- Hidratazioa.
- Nutrizioa.
- Esfoliazioa.
- Pigmentazioa.
- Larruazalaren zahartzearen aurkako tratamendua.
- Erlaxatzea.
- Suspergarria.
- Zirkulazio-tratamendua.
- Esku eta oinetako tratamenduetan erabiltzen diren tresnak, materialak eta kosmetikoak.
- Deskribapena, manipulazioa eta hautatzeko irizpideak.
- Tresnak:
 - Esku eta oinak murgiltzeko ontziak, ziriak, hatz-bereizgailuak, espatulak, pintzelak eta abar.
 - Materialak.
 - kotoia, gazak, belakiak, zelulosazko zapiak, toallak, felpazko eskuzorroak, felpazko zorroak eta esku eta oinetarako plastikoak eta abar.
 - Tratamendu-kosmetikoak:
 - hidratatzaileak, bigungarriak, leungarriak, despigmentatzaileak, esfoliatzaileak, hodiatarako bizkorgarriak, gelak, maskarak, bainu-gatzak, parafina, paralokatzak eta abar.
- Tresnen, materialen eta kosmetikoen mantentze-lanak eta kontserbazioa.
- Esku eta oinetako zainetak egiteko ekipo elektroestetiko espezifikoen maneia, aplikazioa eta kontserbazioa:
 - Langarreztagailuak. Dutzak. Bentosak.
 - bibragailuak, Erradiazio infragorriak. Korrante zuzeneko eta korrante alternoko aparatuak.
 - Berogailuak. Termoterapia.
 - Hidroterapia.
- Aplikazio-arauak. Efektuak, erabilerak, kontuan hartu beharrekoak eta kontraindikazioak.
- Mantentze-lanak egiteko eta kontserbatzeko jarraibideak.

5 Esku eta oinetako tratamendu estetikoaren aplikazioaren ebaluazioa eta kalitate-kontrola

- Bezeroen gogobetetasun-mailaren ebaluazioa.
- Zerbitzuen kalitatea ebaluatzeko formularioa.
- Komunikazioaren puntu nagusiak.
- Indarrean dagoen arriskuak prebenitzeko eta ingurumena babesteko araudia.

C atala: **ESKAKIZUNAK ETA BALDINTZAK**

Baldintza hauekoren bat bete behar da:

- Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako graduatu-titulua izatea.
- 2. mailako profesionaltasun-ziurtagiriren bat edukitzea.
- Lanbide-arlo eta -eremu bereko 1. mailako profesionaltasun-ziurtagiriren bat edukitzea.
- Erdi-mailako heziketa-zikloetan sartzeko baldintza akademikoak betetzea edo erdi-mailako zikloetara sartzeko dagozkion probak gainditu izana
- 25 urtetik gorakoentzako eta/edo 45 urtetik gorakoentzako unibertsitatara sartzeko proba gainditu izana.
- Prestakuntzari behar adinako probetxua ateratzeko behar diren prestakuntza- edo lanbide-ezagupenak izatea, ezartzen den araudiaren arabera.

Prestatzaileen, instalazioen eta ekipamenduen arloko eskakizunei dagokienez, profesionaltasun-ziurtagiri honetarako ezarritako eskakizunak hartuko dira kontuan: Esku eta oinetako zainketa estetikoak.